

BERRIGARA

3. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1991, Urtarrilak 4



Juanito
"Errenteri"kin
berriketan

URTE BERRI ON!

TXANPA

Orain eskiak konpontzen ditugu.
Materialari buruzko aholkularitza. Galdeiguzu.
Iturriotz 23, ARRASATE

GAMAK

INFORMATIKA GAUZAK

ETIKETAK ETA HAUEK DISEINATZEKO SOFTWAREa

Zergatik barra-kode sistema erabili ?

1. Azkarrago irakurtzen delako
2. Akatsik ez delako egiten
3. Hizkuntza ohizkoa eta normalizatua delako

ETIKETAK




Etiketak egiteko ideia berriak
Autoitsaskorrak laser fotokopiagailuentzat
eta inprimagailuentzat.

Etiketa guztiz osatuak, erdi osatuak edo
hutsak

DISEINATZEKO SOFTWAREa

Honekin egitura ugariko etiketak diseina
daitezke eta barra-kode ezberdinak
onartzen ditu, EAN 8. eta EAN 13.,
adibidez, nazioartean normalizatuak eta
Españako merkatal kodifikazio elkarteak
(AECOC) ordezkatuak.

GAMAK

HARTZAILEA	EROSKETA DEPARTAMENDUA	
BEZEROA	LOGISTIKA, S.A.	
LODIERA	1234-ACD	
MATERIALA	PLUMILAK	
LODIERA	0.8 MM	
PIEZAK	012	
PISUA	05 GR.	
PAKETEAK	0019	



ARTZAMENDI 1

Tfnoa: 76 56 85, Faxa: 76 55 97

BERGARA

BONOFOTOA

BERRIGARA

Jardun Elkartea

1991, urtarrilak 4



M. A. Elkorobereibar



Irene Larrañaga

140 txartel inguru jaso genituen lehenengo Bonofotoko erantzunarekin, eta zozketaren orduan Irene Larrañagari tokatu zitzaizkion 10.000 pzt.a.k.

Arrazoia zuen Irenek, bai; Santutxuko Labeaga baserria azaltzen zen argazkian.

Zorionak, beraz, eta sariak on egin daizula!

Besteok, segi jokatzen. Aukera berriak dituzue zain!

Zein da argazkian azaltzen den tokia?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfonoa: _____

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen: **BERRIGARA**

Errotalde Jauregia

20.570 Bergara

Oharra: Asmatzailerik azalduko ez balitz, saria hurrengo BONOFOTOraiko gordeko litzateke, FOTOPOTEAN

EZ LAGA DANA 92ERAKO



EUSKARAREN ERABILERA
INDARTZEKO ELKARTEA

----- 1. ABIZENA	----- 2. ABIZENA	----- IZENA
----- HELBIDEA	----- TELEFONOA	
----- BANKETXEA	----- KONTU-ZENBAKIA	

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

Deitu 76 03 97 telefonora edo
ekarri Errotalde Jauregira.

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfnoa: 760397

Laguntzailea:

Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezar

Erredakzio eta maketazioa:

Jon Andueza. Eburne Arenaza.

Diseinua:

Goio Arana

Publizitatea eta harpidetza:

Eburne Arenaza

Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan Martin Elexpuru.

Kolaboratzaileak:

Josu Oregi, Antonio Urzelai, Iñaki Artola, Agurtzane Arriola, Mirari Alberdi, Karmen Urrutia, Silvia Sanz, Asier Madinabeitia, Imanol Arregi, Mikel Alberdi eta Xabier Larrañaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea, Ion Gurutz Landa, Armando Gallastegi, Benito Cantero eta Kiflu.

Komikia eta marrazkiak

Josu Okina

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa ardura duna:

Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.000 ale

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta erizien erantzunkizunik.



4 OSTIRALA

• Zinea: "Darkman", 10.30-etan.

• Ekologisten mintegia: "Mendia Bizirik"ek antolatuta, Kultur Etxean, 7retatik 9retara, talde ekologistetako partaide direnei zuzendutako mintegia. Hilario Manzanedo eta Iñaki Irizar izango ditugu txostenemaile. Ondoren, el-karrizketa eta mahaingurua.

• Erakusketa: Antzuolako Udaletxean, eta urtarrilaren 6ra arte, Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatutako erakusketa. Bertan pegatinak, argazkiak, presoen eskulanak, etab. bildu dira

• Anje Duhalde: Oñatiko Kiroldegian, 10.30etan hasita, *Kepa Junkera* eta *Anje Duhalderen* emanaldia.

• Goardiako farmazia: Puy, Barrenkalen.

5 LARUNBATA

• Zinea: "Darkman", 5etan, 7.30etan eta 10.30etan.

• Kabalgata: 7.30etan hasi eta Bergarako kaleetan zehar, Melchor, Gaspar eta Baltasar opariak banatzen.

• Trashmetal kontzertua: Txibiston, 11etan hasita, Zarautzeko *Estigia*, eta alemaniako *Kreator* eta *Risk* taldeen emanaldia.

• Oyster Band: Arrasateko Kiroldegian, 10.30etan hasita, *Oyster Band* eta *Celtas Cortos* taldeen emanaldia.

• Goardiako farmazia: Guallar, San Antonion.

6 IGANDEA

• Zinea: "Darkman", 5etan, 7.30etan eta 10.15etan.

• Erakusketak: Kultur Etxean, argazki, pintura eta larru artisautza erakusketak ikusteko azken eguna.

• Kontzertua: Soraluzeako Gaztetxean, 8etan hasita, *Anestesia* eta *Ruido de Rabia* taldeen emanaldia.

• Goardiako farmazia: Guayar, San Antonion.

7 ASTELEHENA

• Zinea: "Darkman", 7.30etan.

• Goardiako farmazia: Estella, Matxiategin.

8 ASTEARTEA

• Goardiako farmazia: Mozos, San Pedron.

9 ASTEAZKENA

• Goardiako farmazia: Camacho, Bidekurutzetan.

10 OSTEGUNA

• Goardiako farmazia: Puy, Barrenkalen.

Aukeran...

• MUSIKA KONTZERTUAK:

• OSTIRALEAN, OÑATIN, *KEPA JUNKERA* ETA *ANJE DUHALDE*

• LARUNBATEAN, TXIBISTON, *ESTIGIA*, *KREATOR* ETA *RISK*

• LARUNBATEAN, ARRASATEN, *OYSTER BAND* ETA *CELTAS CORTOS*

• IGANDEAN, SORALUZEN, *ANESTESIA* ETA *RUIDO DE RABIA*

• PINTURA ERAKUSKETA:

• JUAN BALENTZIAGAREN ERAKUSKETA DEPORTIVON

LAKET

GIZON ETA GAZTEENTZAKO
JANTZIDENDA

IRIZAR IBILBIDEA

IGARO

GOI MAILAKO KOSMETIKA
USAINDEGIA.

BIOSOLARIUMA. EDER-GELA

BARRENKALE 35

BERGARA

Tfnoa: 76 17 27

ITZIAR

MERZERIA

MATXIATEGI 1 BERGARA

Kiñu

ARGAZKIDENDA

ARGAZKILARIAK

ARTEKALE 15
Tfnoa: 76 58 05
BERGARA

HALTZARI

FAGOR HALTZARIEN BANATZAILEA
SUKALDERAKO HALTZARIAK.

BOLU 24. Tfnoa: 76 30 57
BERGARA

**Aldoka
Maldoka**

Taberna

KRUZ GALLASTEGI
BERGARA

CARASA

ASEGURU

ARTEKARIAK

D. FLEMING 3 BERGARA
Tfnoa: 76 15 24



GABONETAN ERE...

Gabonak heldu dira aurtan ere, baita honekin bat urtero naturari egiten dizkiegun kalte eta eraso justifika ezinak. Gure etxeak eta txokoak apaintzeko mendira edo merkatuetara jotzen dugu, gorostia, izeia, erratza, goroldioa eta hainbat espeziari kalte izugarriak egiten dizkiegularik.

EGUZKIK aurtan "Zaindu dezagun natura eguberrietan ere" lemapean egin duen kanpaina helburu bakar batekin izan da: jendea sentsibilizatu eta kontzientziatzen saiatu, natura guztiona dela eta ez daukagula zergaitik 'txikitu' beharrik.

Urtarrilaren 7 eta 8an izeiak ez itza-

zue basurara bota, ze jasotzera pasatuko gara birlandatzeko asmoarekin. Bada-kigu hoguei egun gure etxeetan egon ondoren gehienak ezingo dutela bizitza salbatu, baina uste dugu benetan merezi duela saiatze honek. Gogoratu, beraz, izeiak eta zuhaitz guztiak bizirik daudela, ondo zaindu eta ea Gabon ondoren gure kale eta parkeetan bizirik ikusteko aukera dugun. Kontuan izan behar da ere izeiak izugarriko lana egiten dutela kontaminazio eta zaratatik babesten, eta honegatik ere bide bazterrak eta lan-tegi inguruak toki onak dira landatzeko. Ez dugu pentsatzen gure mendietan landatzea ondo egongo zenik, izeia zuhaitz exotiko bat da eta gure mendietako zuhaitzen explotazioa limitatzen du. Benetan gustatuko litzaigukeena gure mendiak gure zuhaitz autoktonoz ikustea da, eta baita gure kale eta parkeetan bertako espezieak eta exotikoak konbinaturik ikustea ere.

Gogoan izan: natura guztiona da, zaindu dezagun gure etorkizuna.

Bergarako EGUZKI



• ERITETXEAK

Osasun etxea 76 10 82
Larrialdiak 76 12 94
Arrasateko ospitalea 79 53 00

• GURUTZE GORRIA

Bergara 76 55 76

• DYA

Antzuola 76 62 91

• ANBULANTZIAK

Bergaran 76 13 59
Gipuzkoako anbulan. 45 87 44

• SUHILTZAILEAK

Zubillagan 78 28 00

• POLIZIA

Udaltzaingoa 76 14 69
Ertzaintza 76 53 40

• GARRAIOAK


P.E.S.A. 76 16 46
Taxiak 76 19 50

• HIRUGARREN ADINA

Mizpirualde 76 13 68
Aitonak 76 21 40

• BESTELAKO ZERBITZUAK

Udaletxea 76 39 42
Epaitegia 76 14 72
Kiroldegia 76 56 41
Igerilekak 76 20 21
Kultur Etxea 76 44 46
IMI 76 55 49





Bi hilabete barru antzetzuko Bergaran

Taun-Taunen "Bi kate"

Bergarako Taun-Taun txontxongilo taldeak dagoneko prestatuta dauka bere hirugarren lana: "Bi kate", hain zuzen ere.

Bergarrek, Bilbon antolatutako *Euskadiko IV. Txontxongilo Erakusketan* aurkeztu zuten obra berri hau joan zen astean.

Oraingo honetan, bi edadturen inguruko tragikomedio burutu dute, *Bunraku* deituriko teknika erabiliz.

Sei hilabete eman dituzte obra prestatzen. Azkenean,

Nartxi, Karmele eta Iñaki arduratu dira eskenatokian pertsonaiei bizitza emateaz; musikaren arloa Xabik landu du; eta ezin utzi aipatu gabe Itsaso Azkarate eta Jose Antonio de Miguel-ek eskaini duten laguntza.

Kontuak kontu, *Taun-Taunekoen* asmoa hemendik bi hilabetetara obra Bergaran antzeztea litzateke, eta euskara hutsean gainera. Horretarako, Juan Martin Elepurruren laguntza jasoko dute. Emaizta, otsailerako.

✓ Erreka garbitzeko

Bergarako Udalak, Deba erreka garbitzeko plan berezia bultzatu nahiko luke hurrengo urteetan. 300 milioi pztatik gorako kostuaz, eta Javier Sanz ingineruaren egitasmoari eutsiz, errekaaren parean kanale berezi bat eraikiko litzateke, lantegi eta etxeetako ur-hondakinak jaso eta depuratzeko. Era berean, Ola auzoan presa bat eraikiko litzateke, bertan azken garbiketak burutu asmoz.

✓ TB pribatuak

Laister batean, duela hilabete batzuk abiarazi ziren *Canal +*, *Antena 3* eta *Tele 5* telebista pribatuen seinaleak jaso ahal izango ditugu Bergaran. Urtarrilaren bigarren hamabostaldian ez bada, otsailaren hasieran helduko zaizkigu lehenengo emisioak.

✓ Gazteak eta pilota

Iniziatiba ederra Bergarako frontoiak bultzatu nahi duena. 18 urtetik beherakoek ez dute sarrerarik ordainduko profesional mailako neurketak ikusteko. Txalo bero bat!

Emakume baserritarren bilera



Duela aste pare bat, hogeitazortzi emakume baserritar inguru elkartu ziren Kultur Etxean, EHNEk antolatutako bileran. Asmoa, euren egoera aztertzea zen, batez ere EMAKUNDEtik dirulaguntzak eskuratzeko bidean.


Beste gai batzuk ere jorratu zituzten: Gizarte Segurantza, esplotazioak seme-alaben izenean nola jarri, istripu edo gaixotasun kasuan lanerako laguntza lortu, etab. Aurrerantzean ere jarraituko dute elkartzen, bi hilabetez behin.

Angiolilloren bideoaren aurkezpena

Angiolillo musika taldeak abenduaren 23an aurkeztu zuen bere bideoa Txibisto dantzalekuan.

Lagun ugari bildu zen bertan.

Bideoa ikusi eta gero, taldeak zuzeneko kontzertua eskaini zuen. Ikusleak, ordea, hotz; benetan hotz!



anezka

MERZERIA - LENZERIA

D. Irala 5 Tfnoa: 76 25 69
BERGARA

P. MANSO

Optika

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

IRIZAR IBILBIDEA 2 Tfnoa: 76 27 86 BERGARA

Urriaren 6an ospatuko da

Kilometroak 91 Bergaran

Duela bi aste jakitera eman zenez, 1991. urteko *Kilometroak* Bergaran antolatuko da.

Urtero bezala, urriaren lehenengo igandean egingo da ospakizuna; kasu honetan, 1991eko urriaren 6an.


Joan zen urtean ere Bergarako ikastolak *Kilometroak* prestatu nahi izan zuen; azkenean, ordea, Andoainekoari eman zitzaion ardura.

Lehenengo lan taldea

Bergarako ikastolaz gain, aurtun Oihartzunekoa ere hautagai modura aurkeztu zen. Gauzak horrela, Bergaran aspalditxo sortu zen lehenengo lan taldea ikastolako jendearen inguruan.

Zirkuitoa erabaki, edota aparkalekuak kokatzeaz gain, 8. mailako neska-mutikoeak, adibidez, bideo berezia muntatu zuten Bergararen alde onak azpimarratuz.

Lan talde horren emaitzak begibistan gelditu zaizkigu



antolaketaren adjudikazio-arekin.

Zirkuitoa

Zirkuitoaren hasiera Seminarioko futbol zelaian egongo da. Handik Santa Marina aldera joko du, gero San Joxepetik Zurrara (San Martin Kurutzeraino, hain zuzen ere), Zurratik Kiroldegira, azkenean herriko kaleak zeharkatuko direlarik: Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia, Bidekurutzeta,

etab., berriz ere Seminaria itzuliz.

Aparkalekuak, bestalde, San Lorentzoko industrialdean, Labegarietan, Autobus geltokiko ingurunean, Antzuolara bidean eta Toki Ederren kokatuko dira.

Prentsaurrekoa

Egitasmoaren inguruko xehetasun gehiago, bi aste barru egingo den prentsaurrekoan emango da. Orduetik aurrera, guztiok lanera!

Hitza hartu

"Ez dira gizarteak ezta indibiduoak hizkuntza molde atzen dutenak, guztiz alderantziz baizik".



Beraz, euskara dugulako gara euskaldunak, edota euskarak egiten gaitu euskaldun?! Honela beharko luke izan. Hizkuntza propioak, izaera desberdinak, herri bereiztuak.

Dena den, hizkuntza guztiek, kontzeptua izan arren, hitzen falta dute zenbait ideia, asmo eta sentimenduri izen bat emateko. Guk, euskaldunok, herri sentimendua dugula adierazteko, eta guk, bergararrok, euskarak euskaldun egiten gaituela esateko **HITZA HARTU** eta asmoari izena jarri diogu: **"KILOMETROAK"**. Aurtun, Bergaran!

Andoni Etxeberria

(Ikastolako Zuzendari Pedagogikoa)

BERGARA
76 32 02

ELGOIBAR
74 02 36

ANTZUOLA
78 70 30



THE KENSINGTON SCHOOLS OF ENGLISH



Gipuzkoako Hizkuntz Ikastegien
Elkarteko kideak

CAMBRIDGE Unibertsitateko P.E.T.
azterketen antolatzaileak .
IZENA EMATEKO EPEA IREKITA.

San Juan Txiki egunean

Juanito "Errenteri" kin berbetan

Juanito Imaz Bastarrika, aitarengatik datorkion "Errenteri" gaitzenaz ezagunagoa. 1922. urteko maiatzaren 6an Barrenkalen jaio eta pare bat hilabetetara orain lkerleku deitzen den kalera pasa zen bizitzera, garai batean Elhuyar anaiek ikerketa eta aurkikuntza ospetsuak eginiko leku berberera.

Eta Intxorta tabernako txoko batetan jazarri ginen eta ekin genion...

- Nola animatu zinen plazako postua jartzera?
- Egun haietan, eta badira 15 edota 20 bat urte dagoeneko, Bergarako Filatelia eta Numismatika elkarteak okurritu zitzaion, gazte eta umeen zaletasuna suspertzeko asmoz.

✓ **Niri hor egotea gustatzen zait, saltsan...neure arkupetako merkadilluan.**

Hasieran 17 lagun biltzen ginen, baina aitzakiak aitzaki azkenerako 17tik 3 lagunera pasa ginen: Pedro Azkarate, Aretxabaletako Juanjo eta ni neu. Hirurok ibiltzen ginen elkarrekin, baina Pedro eta Juanjo hil egin zitzaizkidan, eta bakar bakarrik geratu nintzan. Hasiera bateko beste lagunak metroak eta metroak jarri zituzten elkarren artean, eta ez zidaten ezertan lagundu, ezta bisitatu ere.

- Non demontre jiratzen dituzu saltzeko bitxikeria guzti horiek?

- Makina bat lekutatik ekaritzen ditut, Andorra, Portugal, Madril edo Bilbotik. Autobusa hartu eta han noa, merke erosiz eta oraindik merkeago salduz.

- Ondo saltzen al dituzu?

- Begira, merkadilluan nobedade handiak dauzkate. Esate baterako, atzo bertan Bilbotik metxero perfumatuak ekarri nituen, hogeita bikoitza. Baina esan behar salmentak ez duela konpentsatzen, denbora asko eta salmenta gutxi. Hala ere, astean bi egunetan bakarrik izaten naiz plazan, zapatu eta domeka goizetan.

- Beharbada, ondoko egunetan gehiago saltzeko aukerarik izango duzu, errege egun bezpera izanik...

- Baliteke, baina argi dago



makal dabilela negozioa. Metrailleta eder bat ere badaukat salgai baina beldur naiz salduko ote dudana. Baina niri hor egotea gustatzen zait, saltsan...Badakizu, nik edateari utzi nion, hura problema latza bait zen, eta txikiteotik ihes egin behar, eta entretengarri izango nuen zerbait topatu behar, eta hortxe soluzioa, aukera eta afizioa: neure arkupetako merkadillua.

- Eta astegunetarako, ba al daukazu bestelako afiziorik?

- Selluak eta billeteak. Horiekin lotuta, bidaiatzea. Zinea ere atsegin zait eta sarritan joaten naiz. Paketea izanda ere, hura trankil trankil egoteko leku aproposa. Txikiteua egin ezin ezkerero, han hobe. Edatea laga nuenean

kafeak hartzen nituen txikiteuen moduan eta hura ere ez zen jiria.

- Uda partean zer, ba al zoaz oporretan?

- Horixe baietz. Aurtengo udan Madrileren joan naiz. Hostal batetan pasa nituen egunak, Hostal Veracruz, Puerta del Soletik 200 metrotara. Estranjerua besterik ez zegoen bertan, baina ondo konpontzen nintzen sudamerikano haiekin, Argentinuak, Peruanuak... Berriketaldi ederrak! Baina nik Bilbo ezagutzen dut onduen, ia bilbotarrek baino hobeto, eta hantxe izan nintzen aurretikoan loteria erosten, 63a eta 89a, neure numeruak! Ea oraingoan tokatzen zaidan!

Horrela ez bada ere, zorionak Juanito!

"ORTZI"

ERRETEGIA

ANGIOZAR Tfnoa: 76 16 19

BASTEA

MODA ETA LAGUNGARRIAK

T.Aranzadi

Tfnoa: 761008

BERGARA



✓ XI.. Gabonetako kontzertua

Azaro-Abendu Musikalari amaiera emateko, jende ugari bildu zen herriko pilotalekuan. Abenduaren 22a genuen, gaueko 10.30ak inguru.

Udal Musika Banda, Aritzeta Abesbatza, Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoa eta Bergarako Orfeoiaren eskutik, emanaldi ederra gozatu ahal izan zuten bertara hurbildutako guztiek. Aurrerantzean, beraz, edizio berri eta oparago baten zai gelditzen gara!



✓ Bapo afaldu behar...

Ohitura zabaldua dugu Gabonetan senide arteko afari ederrak prestatzea.

Bai 24an eta bai 31n ere makina bat lagun hurbildu zen denda eta azokara, ahalik eta produktu onenak erosi asmoz. **Begiratu, aukeratu, eta gauean bapo afaldu;** horra hor sekretua!



✓ Oporrak eta jolasa

Ez da izango Gabonetan gure neska-mutikoek baino gehiago disfrutatzen duenik. **Ikastolan oporraldia bizi dutela eta, denok jolasera!**

Aurten, gainera, eduki dute, bai, non aukeratu. Udaleko Kirol edota Kultur Zerbitzuek, adibidez, makina bat ekitaldi prestatu dituzte haurrentzat, eta hauek, euren aldetik, ondo baino hobeto aprobetxatu eskaintza zabala!



✓ Olentzero joan zaigu...

Jaigiroan ospatu zen abenduaren 24an Olentzeroren etorrera. Kintoak, Ikastolako haurrak, etab. izan genituen kaleetan kantari.

Gauean, berriz, eta ongiatorria eskertzeko, gure **Buruhaundiak** opari banaketa egin zuen etxeetan.

Zurrumurruek diotenez, halere, non edo non ikatza ere utzi omen zuen!

Iskaidar
LIBURU-DENDA

MARTOKO 38
Tfnoa: 76 45 96 BERGARA

JUANITO ERRENTERI

EDOZEIN BITXIKERIA, JOSTAILU
PAREGABEAK, SELLUAK,
BILLETEAK ETA NOBEDADERIK
HANDIENAK...

**ERREGA EGUNERAKO
ERREGALUA BERTAN!**

PLAZAKO ARKUPEAN



✓ Urte berria, opari berriak!

Bergarako etxe gehienetan Gabonetako opariak Olentzerok utzi bazituen ere, txikitxoak ez dira gero erraz konformatzekoak.

Urtarrilaren 6an helduko diren Erregeentzat eskariak jasotzera *Bizarzuri* etorri, eta horra hor non plantatu ziren neska-mutiko mordoia euren gutunekin. Noski, 90ekoak eskuratu ondoren, erregalu berriak nahi dituztelako 91ean!



✓ Umore onakin hasi

Horixe izan ohi da gazteen konsigna urte jaioberriari ongiatorria emateko orduan. Tabernaz taberna, goizaldera arte irauten du festak

Kopa batzuk, petardoak...eta hortik aurrera edozerk balio du adarra jotzeko bidean. Ikusi bestela argazkiko koadrila. Ez zitzaien, antza, umore onik falta!



✓ Gora 1991!

1991. urteko lehenengo orduak heldu bezain pronto, adin guztietako bergararrak elkartu ziren kale eta tabernetan, zorionagatik topo egitera.

Guk geuk ere gure kopa altxatu nahi dugu, bergarar guztiekin batera:

Hil zaigu 90a. Gora 1991!

✓ Antxitxiketan

Mundu zabaleko beste toki askotan bezala, Bergaran ere San Silbestrea antolatzen da abenduaren 31n. Aurtengo edizioan lagun ugari bildu zen proba korritzera.

Helmugan, Luis Fernandez izan genuen azkarrena; baina hori ez zen kontua, antxitxiketan egitea baizik: joan dena agurtu eta datorrena laztandu, biak ere antxitxiketan...



EDURNE
ZORIONAK
ETA
URTE BERRI ON
7tik aurrera beharpenak
ESPOLOIA 8 BERGARA
Tfnoa: 76 59 25

PUXKIN
OINETAKOAK

D. IRALA.
BERGARA Tfnoa: 76 21 17

ARGAZKI
BARRENKALE 16
Tfnoa: 762066
BERGARA

Zer eskatuko zenioke 1991ri bergararentzat?

PRAKAK
Lee rok
 Burdinate z/g
 Tfnoa: 76 40 06 BERGARA

**Euskalduna
 Taberna**
OSINTXU


IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
 D. IRALA 5
 Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

CAMACHO
 * DROGERIA
 * USAINDEGIA
 BIDEKURUTZETA 24
 BERGARA. Tfnoa: 761335



Jorge Mondina
43 urte

Gidaria naizenez, aparkalekuen arazoa behingoz konpontzea eskatuko nuke. Eta elkarte guztiei tratu berdina ematea, faboritismorik gabe.



Ana Larrañaga
38 urte

Jende guztiarentzako lana egotea, eta ahal den neurrian, eguneroko bizitzan iskanbila eta gatazka gutxiago gertatzea.



Miren Ostolaza
15 urte

Gazteentzako lokal gehiago ikusi nahiko nituzke, batez ere inizatiba eta ideia berriei irtenbideak emateko.



Jon Ander Gantxegi
24 urte.

Naturaren aldeko kontzientziazio sendoagoa, bai pertsona eta bai Bergarako erakunde publikoen partetik.

Zubikua

Barrenkale 24
Tfnoa: 761016

BERGARA

LONBIDE
OINETAKOAK

 BIDEKURUTZETA 7, Tfnoa: 76 10 57 BERGARA

KILKA
 MENAGE
 ETA
 OPARIAK
 BARRENKALE 18
 Tfnoa: 76 34 08
 BERGARA




Eusebia Usabiaga eta Txomin Amasorrain zenaren ohiturari eutsiz, joan den larunbatean, hilak 29, **Turkarrixan bildu ziren Amasorrainarrak, euren XIII. Txanpanaldia ospatzera.** Arratsaldeko 5etan elkartu ziren, txorixua, patata tortilla, turroia eta txanpaina dastatzera.

Kiñuk utzitako argazkian, honako lagun hauek ikusten ditugu:

Zutik (ezkerretik eskumara): Jesus Narbaez, Juan Carlos A., Arantxa Lizarralde, Agustin A., Roberto Narbaez, Nagore Narbaez, Esperanza Azkarraga, Eusebia Usabiaga (Amasorrainarren ama, justu erdian dagoen emakume ile zuriduna), Aner Narbaez (atzean), Jon A. (Eusebiaren aurrean), Ainhoa A., Jesus Zabaleta eta Eusebio A. (biak leihoan), Xabier A. (txanoa eta bibotea), Izaro A., Julian Larrañaga (txapelaz), Arantxa Gantxegi, Julen Narbaiza, Rafael A. eta Sasio A.

Eserita: Juanje A., Ramon A., Uxue A., Miren Arregi, Aintzane Narbaez, Jokin A., Amaia A. eta Ander A. Hantxe izan genuen Bruno txakurra ere, Amasorrainarrekin jaigi-roan!



Azken bost urteotan bezala, Aranzadi **ikastofako neska-mutikoe**k alaitasunez ospatu zuten **San Jolgorio jaia**.

Oporrak hasi aurretik azken eskola-eguna zela eta, hortxe jardun zuten hainbat jolas ezberdinetan.

Arratsaldean, eta festari bukaera eman aurretik, haurrek bapo jan zuten azken orduko txokolatadan.



Zertan dihardute ba?

JON ANDUEZA

Berrigara astekariko erredaktore eta maketatzailerak arrasatearra akzesita eskuratu zuen AED Elkarteak antolatutako ipuin lehiaketan, *Jack Esnaulten balada* lanagatik



JOSUREN MURGIZU

Hamar urte espe-txean daraman preso bergararren lanak urtarillaren 6ra arte izango ditugu ikusgai Kultur Etxean. Josuren Murgizuk larru-artistautza lantzen du, eta maila polita erakutsi gainera.



IÑIGO IGARTUA

Araian jokatutako Euskadiko ziklo-kross Txapelketan, afizionatu mailan Iñigo izan genuen garaile.



egizabal

Elisabete

BERGARA

BERGARA PIEL

Espoloia 6
Tfnoa: 76 20 70

BERGARA

Gabon inguruko esaerak

Esaera zahar asko urte-sasoien eta eguraldixan gaiñian izaten die eta ikusi daizkun batzuk gure herrixan Gabon buelta honetan esaten diena.

Urteko egunik motzena Santa Luzia eguna (Abenduak 13) da jentian ustez:

“Santa Luzia eguna argittu orduko iluna”

Gose antzian bizi zan jentia urte gehixenian, baiña Gabonak zetozenian...:

“Natibitate, ase ta bete”

Baiña gutxi irauten dau pozak pobrian etxian eta San Esteban egunian (Abenduak 26) berriz be lehengora:

“San Estebantxe, berriz be lehen letxe”

Egun motzenak pasau die eta edozein konturatzeko moduan hasten da eguna luzatzen:

“Urte berrixari zoruak pe igarri”

Baiña oindio negu gogorra dago aurretik, eta honen erditzat San Bizente eguna (Urtarrilak 26) jotzen da:

“San Bizente hotza neguan bihotza”.



Negu erdixan, Kandelaixo egunian (Otsailak 2) egualdi ona izatia seinale txarra da.

“Kandelaixo hotz, negua motz, Kandelaixo bero, negua gero”

Juan Martin Elexpuru


Hiltzea, pekatu garestia

Gaur egun ere hiltzea ez da merkea, baina sasoi baten beldurra ematekoa zen. Ondorengo testua 1.780 inguruko da eta Iñaki Zumalde historiagileak aurkitu zuen Bergarako udal artxiboan. “Bergarako Euskera” liburuan ere ikusi zuen argia Jerardo Elortzaren eskutik.

Asuntua da hiltzea ez zela broma: Urrinetik zetozen senitartekoei ostatua eman beharra, jatorduak -hondra bazkariak- eta ileta-elizkizun garestiak. Familia asko zorpean gelditzen zen hiletaren ondoren, bururik jaso ezinda.


Dirudienez, norbait hil zela jakiten zutenean apaiz pila bat apuntatzen zen elizkizunetara -eta jatorduetara- deituak izan gabe eta gero kobratu egiten zioten familiari beren zerbitzua. Jendea kejatzen zen, baina elizgizon gehienek ez zuten egoera hau aldatzerik nahi elizkizun horiek bait ziren beren diru-iturririk haundienetakoa. Hau dela eta, Gaztelako Kontseilu Gorenak erabaki zehatzak hartu zituen abuso hauek mozteko eta hamaika ataleko agiri bat bidali zuen, Lorenzo Elizpuru udal-idazkariak euskaratu zuena.

Agirian behin eta berriro errepikatzen da gehienez sei abadek har dezaketela parte elizkizunetan: “Agintzen dana da, eze difuntuaren parteak nonbratzen dituen sei abadiak bakarrik jua ditiala eta oiei bakarrik pagatu bear zaitela beren deretxuak, eta ez beste abaderi”.



NEREA
LENZERIA

S. Arrieta Enparantza, 1
Tfnoa: 761952 BERGARA



Barrankale, 3. BERGARA • telef.: 943-765919



ETXEPARE - BILINTX
LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

Emakumezkoen saskibaloian torneo ederra



Joan den astebukaeran, eta emakumezkoen saskibaloian dagokionean, jubeni mailako *Gabonetako VII. Txapelketa* ederra ikusteko aukera izan genuen.

Aurrez aurre izan genituen Bergarako *Rotulos M2*, eta goi mailako Donosti, Juven eta Gasteiz taldeak.

Lehenengo finalerdian, Donosti-k Juven Taldea menperatu zuen 10 puntuko aldeaz. Bigarren finalerdiak ez zuen kolorerik eduki. Gasteiz-ek erraz jipoitu zuen Bergarako Taldea, 40 puntu-ko errenta lortuz.

Asteheneneko finalean, berriz, donostiarrak nagusitu ziren, 68-58. Gasteiztarrek bigarren postua eskuratu zuten, Bergarako hirugarrena, eta Juven-ek laugarrena.

Jokalaririk onena, Donosti-ko Leire izendatu zuten.

Finalean, Errealak 1-0eko emaitzaz Athletic-a gainditu

VII. Josu Linazisoro Memoriala

Egun hauetan, eta azken zazpi urteotako ohiturari jarraituz, gazte mailako Bergara, Antiguu, Athletic eta Erreal futbol taldeek *Josu Linazisoro Memoriala* jokatu dute Ipintza zelaian.

Josu Linazisoro bergararrak 1983ko ekainaren 14an bizia galdu zuen zorigaitzak jota. Hemezortzi urte zituen. Futbolaria genuen, gazte mailako Bergara eta Antiguu taldeetan jardun zuelarik.

Errealak garaile

Ostiraleko lehenengo finalerdian, Errealak 6-0eko emaitzaz gainditu zuen Bergara taldea. Larunbatean,



berriz, Athletic-ak 4-1 irabazi zion Antiguokori.

Igandean Agorrosinen jokotutako finalean, azkenik, donostiarrak 1-0 irabazi zieten bilbotarrei. Hirugarren postua Antiguok eskuratu zuen, eta Bergarak laugarrena. Guztiek joku ederra era-

kutsi zuten Josuren omenez.

Bestalde, Gipuzkoako Federazioak aukera aprobeztatu zuen Javier Madinabeitia, Onesimo Manzano eta Cruz Jauregi bergararrei oroigarriak eskaintzeko, urteetan zehar egindako lanaren errekonozimendu gisa.

Bergara Futbol Taldearen entrenatzaile berria

Bergara Futbol Taldearen aurtengo emaitzak nahi beste onak ez zirela eta, zuzendaritzak entrenatzailea aldatzea erabaki zuen duela aste batzuk; horrela, Juan Luis Arregi elgoibarrak hartu zuen preferente mailako taldearen kargu, lan horretan hiru urte eman duen Jesus Mari Larrañaga eta Fernando Juaristik osatutako bikotea ordezkatzuz.

Arregik 37 urte ditu. Fut-

bolari moduan Elgoibar Taldean eman zituen lehen urratsak. Handik Eibar taldera pasatu zen, gero Durangora, azken urteak Bergaran jokatu zituelarik.

Entrenatzaile bezala ere *Curriculum* aberatsa erakusten du. Besteak beste Bergara, Eskoriatza, Elgoibar, eta Aretxabaleta Taldeak zuzendu ditu. Azken boladan, bestalde, Bergarako gazte taldean ziharduen.

Preferente mailara itzuli



denetik, ordea, emaitza kaxkarrak lortu dira. Bi partidu jokatu dituzte Agorrosinen 0-3 eta 2-2ko markagailuak eskuratuz.

Garbil

Industriarako Inprenta lanak. Papergalak eta idazteko gauzak


ARTZAMENDI 4 BERGARA
Tlfnoa: 76 23 28

BOLINTXO

KIROLA EGITEKO BEHAR DEN GUZTIA.

IBARGARAI 10, Tlfnoa: 76 38 32 BERGARA

BRUNET MERKATALDENDA



Enrique Brunet

Ozaeta 11-13 Tlfnoa: 76 31 52 BERGARA



Gipuzkoako Diputazioaren laguntzaz, 1925-26 aldera, "Escuela de Hogar" deitutakoa sortu zen Bergaran. Eskola horren helburua ezkondu behar zuten neskek gertatzea zen eta, horretarako, irakasten zieten jana gertatzen, plantxan, zurzitzen, josten eta gero eskola pixka bat ere bai. Izan ere, garai hartan neska gehienak umezain edo kriera hasi behar izaten zuten 8-10 urtekin eta, horregatik, eskola oso gazterik utzi behar izaten zuten. Esandako "Escuela de Hogar" hori Juzgauko goian zegoen eta arlo bakoitzerako bere irakasleak izaten zituen.

Erretratuan ikusten ditugunak eskola horretan josten

ikasten ziharduen taldekoak ditugu. Ezkerretik eskumara honako hauek dira:

Zutik daudenak: Pilar Idarreta, ezezaguna, Muiñondoko Pia (Jostundegiko irakasle egiten zuena), Klelia Atorrasagasti, Maritxu Mujika eta Ines Larrañaga.

Jarrita daudenak: Ezezaguna, Gabirixako Basili (?), Juli Aranes, Natalia Urkiola, Juanita Maiztegi (gero bizi guztian josten erakutsi duena) eta Miren Agirreolea (urte askoan Burgoseko Moja Trinitarioen Superiora izandakoa).

Estepan Plazaola

Argazkia: Asuntxi Idarreta

Azalpenak: Asuntxi Idarreta eta

Juanita Maiztegi

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Enparantza, 5
BERGARA

Tfnoa: 764150

A. ZANGITU

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE



ETXEBIZITZA

- Neska gazte bat beste neska batzuekin biziko litzateke pisuan. Tfnoa: 763527.
- Amueblatutako pisu bat alkilatzen da denboraldi baterako. Tfnoa: 861555, edo 862301.
- Pisua behar dut alkilerrean. Tfnoa: 764255.
- Gela independente bat alokatzen da. 762112.
- Konpondutako pisu txiki bat salgai oso modu onean. Deitu 13.15etatik 14. etara. Tfnoa: 761079.
- Pisua salgai. Tfnoa: 761487, 1etatik 3retara eta 8etatik 10etara.

- Pisu erdiamueblatua alkilatzen da. 762793, 8etatik 10etara.
- Umerik gabeko andragizonek pisu bat behar dute alkilerrean, lehenbailehen. 781704, edo 941-209883.
- Baserria salgai Bergararik 3 km.ra. 770081, 10etatik 1etara eta 6etatik 8etara.
- Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823
- Pisua alkilatzen da. Tfnoa: 763797. 2etatik 4etara eta 8etatik 10etara.
- Pisua salgai Olan, konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669.
- Pisua alokatzen da Toki-Ederren. Gaez deitu 764988 Tfno.ra.

LANA

- 16 urteko neska euskaldunak umeak zainduko lituzke 3retatik 9ak arte. Tfnoa: 764061.
- Neska bat edo andre bat behar da bi ume zaintzeko. Gaueko 8.30etatik 10etara. Tfnoa: 764806.
- Emakume bat eskaintzen da lanerako. 765403.

- Pintura klaseak. Tfnoa: 764014 edo 763493
- Ikasi josten zure astaldietan. 762858
- 20,50 m2ko garajea alkilatzen da Burdifatzen. Egin berria. 764003
- 55 m2ko lokala alkilatzen da. 765859, gaueko 9etatik aurrera.
- IPUIN dendaren albo-ko lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

DENETARIK

- Alemaneko klase partikularrak. 765697.
- Marrazki klaseak ematen dira FP, BUP, REM eta Ingenerutzako 1. mailakoentzat. 761330.

SALDU-EROSI

- Karrerako bizikleta ia berria salgai. Kuadroa Mercier, pieza gehienak Zeus. Prezio ona. 763269

Hildakoak

- Pablo Mendia Zubizarreta. 19an. 75 urte
- Teresa Ayastui Berrio. 24an. 87 urte.
- Martina Aranzabal Lasagabaster. 25ean. 84 urte.
- Felicia Azkarate Gallastegi. 27an. 69 urte.
- Juana Larrea Elkoroiribe. 29an. 83 urte.
- Maria Larriategi Arenaza. 2an. 75 urte.

BERRIGARA

Egin zaitez harpidedun



FERNANDEZ



OIHAL PUSKAK
OIHALAK

Tfnoa: 76 22 93 | Tfnoa: 76 53 22
San Antonio 3 | Ibargarai 2
BERGARA

ayastuy

JANTZIDENDA

BARRENKALE, 30
Tfnoa: 76 11 31
BERGARA

ESCRITURA: MONT BLANC SHEAFFER PARKER WATERMAN PELIKAN

WECLE TOMBO SAILOR LAMY DANIEL HECHTER OMAS MATERIAL

ESCOLAR: CA OS SARO BCN

TRAFIC CLAI RAFOS REGLAS TIJERA

PEGAMENTOS ULADO BI INOXCROM

PE LIBRO

CONT ICULO

CLASIFICACION FICHEROS DOSSIERS MIQUEL RIUS ESSELTE QUER AL

TIPPEX 3M SCOTCH TESA PRITT BIC EL CASCO VELLEDA PETRU

STYB DIBUJO TECNICO: PARALEX ESTILOGRAFOS COMPASES STAEDLE

FABER CASTELL ROTRING LASTER COMTE AGENDAS: FABIO FENCC

QUO VADIS EXACOMTA REGINA LUXINDEX NAVA DESIGN KENY

DEUSTO MYRGA ADDEX PAPEL: REGALO DECORACION ESCRITURA

DIBUJO TECNICO BELLAS ARTES CHAROL ESCAPARATISMO CAJAS CARTON

ESCRITURA: MONT BLANC SHEAFFER PARKER WATERMAN PELIKAN

WECLE TOMBO SAILOR LAMY DANIEL HECHTER OMAS MATERIAL

ESCOLAR: CARPETAS CUADERNOS PARDO UNIPAPEL SARO BCN

TRAFIC CLAIRFONTAINE BOLIGRAFOS PORTAMINAS REGLAS TIJERA

PEGAMENTOS PINTURAS ROTULADORES STABILO JOBI OXCROM

PENTEL PILOT UNIBALL MATERIAL DE OFICINA: LIBRO

CONTABILIDAD CINTAS ADHESIVAS CORRECT

CLASIFICACION FICHEROS DOSSIERS MIQ

TIPPEX 3M SCOTCH TESA PRITT BIC TRU

STYB DIBUJO TECNICO EX ESTILOGR

FABER ER COMTE

DE XINDEX

DIB UN ESCRITURA

ESC CAJA

WECLE TO... HEAFFER PARKER

ESCOLAR: LAMY DANIEL

TRAFIC CUADERNOS PARDO BCN

PEGAMEI BOLIGRAFOS PORT

PENTEL AS ROTULADORES S

CONTABILID UNIBALL MATERIAL DE OFF

CLASIFICACI AS ADHESIVAS CORRECTORES ETIQUETAS ARTICULOS

CHEROS DOSSIERS MIQUEL RIUS ESSELTE QUER ALT

HAU OSO

EZBERDINA DA

J. URIARTE PAPERDENDA

GURE BEREZITASUNAK:

- * Idazketa
- * Bulegorako gaiak
- * Eskolarako gaiak
- * Marrazketa teknikoa
- * Idaztegiko gauzak
- * Oparigaiak
- * Apaingarriak
- * Agendak
- * Larrukiak

**MERKATUKO MARKA
ONENEK BERMATU ETA
ABALTZEN GAITUZTE**

ZATOK IKUSTERA!

ARRASATE

Ferrerias 32.

Tfnoa:77 03 80